

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**564/2015 Ebazpena, martxoaren 13koa, Ogasuneko zuzendariarena, Arabako Lurralde Historikoan Iruzuraren aurka Borrokatzeko 2015eko Plana hezuramaitzen duten irizpide orokorrak aditzera ematen dituena**

Arabako Foru Ogasunak helburu hauek dauzka, bestek beste:

A) Zergadunak sakonean ezagutzea beraien beharizanetara eta lehentasunetara moldatzeko, haien betebeharrak ez betetzeko arriskuak kudeatzea, eta kontrol eta ikuskapen ekintzen planifikazioa erraztea.

B) Zerbitzu pertsonalizatuak, proaktiboak eta kanal anitzekoak eskaintzea zergadunen interesetarako kanal egokienak erabiliz eta, ildo horretan, Interneten eta teknologia berrien alde apustu egitea.

C) Elkarrengarritasuna ahalik gehien garatzea eta izapideak eta eginbeharrak ahalik gehien erraztea; horretarako informazioa trukatu da denbora errealean eta prozesuetan laguntzaile berriak (publikoak eta pribatuak) sartuko dira. Horrela zerbitzuak batuko dira eta eskumenak gardenak izango dira.

D) Erabakiak hartzeko tresna hobeak edukitzea, iruzurra identifikatu, abisatu eta, ahal den heinean, hura neurtzea ahalbidetuko dutenak.

E) Baliabideen erabilera eraginkorra bermatzea, zerbitzuak baloratu eta lehenetsi ahal izateko, haien baliabideak modu arduratsuan erabiltzeko eta gardentasuna areagotzeko.

Helburu horiek, beraz, badute alderdi bat zuzenean bideratzen dena balioa sortzera eta betebeharrak borondatez bete daitezzen erraztera, iruzurrari aurrea hartuz.

Iruzuraren aurka Borrokatzeko Planaren barruan iruzurraren prebentzioa eta egindako iruzurraren detekzioa azpimarratu behar dira. Zergadunak zenbat eta hobeto ezagutu, eskaintzen diren zerbitzu eta bide berriak zenbat eta kontrolatuago egon eta erabakiak hartzeko eskura dauden tresnak zenbat eta aurreratuago egon, orduan eta hobeak izango dira arriskuen gainean egin ahaliko diren jarraipena eta neurketa, arrasto berrien detekzioa eta egindako azpijoko eta iruzurren salaketa.

Hala, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Planeko irizpide horiek segmentazioa eta pertsonalizazioa bezalako neurriak partekatzen dituzte, baita helburu bat ere: kudeaketa zergen eta prozedura arautzaileen neurriaren egindako prozesua dela ulertzetik irten eta hura hasiera batean antzekotasunik ez zuten zergadunen jokabide eredu eta segmentuetara egokitzea pasatzea. Hori dela eta iruzurrari aurrea hartzea eta egindako iruzurrak bilatzea kontroleko berariazko eremuei zuzendutako neurriekin osatzen da, eta beharrezkoa da segmentuko azterketa eranstea, bai ikuspegi honetatik begiratuta, bai norberaren borondatez obligazioak betetzearen eta prebentzioa sustatzearen ikuspegitik.

Azaldutakoa kontuan hartuta, hauxe

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 112. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako aditzera ematen dira Arabako Lurralde Historikoan

Iruzurraren aurka Borrokatzeko 2015eko Plana hezurmamitzen duten irizpide orokorrak, ebazpen honen eranskinean daudenak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoren 13a

*Ogasuneko zuzendaria*

*JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO*

## ERANSKINA

### ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO 2015EKO PLANA HEZURMAMITZEN DUTEN IRIZPIDE OROKORRAK

#### I. IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO PLANAREN HELBURUAK ETA JARDUKETAK

Ebazpen hau otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 112. artikuluan xedatzen duena betetzeko ematen da; hara zer dioen: "Urtero, Zerga Administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko du; plana isilpean edukiko da baina, hala ere, beraren irizpide orokorrak aditzera emango dira".

Arabako Foru Ogasunak Iruzurraren aurka Borrokatzeko Plana garatuko du, azken helburu hau duela: zergadun guztiek eta bestelako zergapekoek euren betebeharrak betetzen dituztela bermatzea, halako moduan non herritarrek eta enpresek funts publikoetara egiten duten ekarpena bidezkoa dela sinetsiko baitute eta beterik ikusiko baitute Ogasunarengandik espero dutena, alegia, erakunde bermatzailea, erraztailea, berritzailea eta eraginkorra izatea. Xede horretatik bost helburu estrategiko eratortzen dira, hain zuzen ere iruzurraren aurka borrokatzeko bost modu:

1. Helburuetariko bat izango da zerga betebeharrak borondatez bete daitezen sustatzea, eta hori lortzeko informazioa hobetuko da, zerbitzuak pertsonalizatuko dira, kudeaketak erraztuko dira eta zergadunari orientazioa emango zaio eskura dituen aukera guztien artean erabakitzeko.

2. Beste helburu bat izango da herritarrentzat ahalik eta baliorik handiena edukitzea Foru Ogasunak berak eta beraren zerbitzuek, herritarrek hobeto bete ditzaten euren zerga betebeharrak.

3. Hirugarren helburua iruzurrari aurrea hartzea izango da, hau da, iruzur arriskua aldeztatik identifikatzea, prebentzio neurriak hartzea eta iruzurraren bilakaerari aldian behingo jarraipena egitea harik eta arazo bihurtzen den arte, eta, ildo horretan, detekzioan lan egitea iruzurrari aurrea hartuta.

4. Foru Ogasunaren helburu izango dira, halaber, iruzur jarduketak detektatzea eta erregularizatzea.

5. Helburu gisa azpimarratu behar dira, azkenik, borondatez ordaintzeko epean nahiz betearazpen aldian zerga zorren kobrantza kudeatzeko jarduketak. Detekzio eta erregularizazio jarduketak bezain garrantzitsua da horien ondorioz egiten diren likidazioen kobrantza. Foru Ogasunaren prozeduraren amaieran zerga zorrak kobratu behar direnez, zentzuzkoa da kobrantza hori modu eraginkorrean egiteaz arduratzea.

#### II. BETEBEHARRAK BORONDATEZ BETE DAITEZEN SUSTATZEKO JARDUKETAK

Iruzurraren aurka Borrokatzeko Plana ez da jazarpen eta hertsapen jarduketetara mugatu behar. Aitzitik, epe ertain eta luzean garatu beharreko balioa ere izan behar du, Foru Ogasunaren

aurretiazko edo prebentziozko jarduketak egin behar baitira hainbat arlotan, hezkuntzatik hasi eta zergen kudeaketaraino.

Zergapekoek euren zerga betebeharrak borondatez betetzera bultzatuko dituzten ekintzak sustatzea da helburua; batez ere, zergapekoei autolikidazioak eta aitortenak egiten lagundu behar zaie eta herritarren kontzientzia fiskal kolektiboa sendotu behar da.

Zerga betebeharrak betetzean zergapekoei sortzen zaizkien zeharkako kostuak murriztea eta haien segurtasun juridikoa areagotzea, bi elementu horiek asko laguntzen dute zergapekoek euren zerga betebeharrak nahita bete ditzaten. Horregatik, 2015ean ahalegin berezia egingo da jarduketa arlo hauetan:

a) Teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera eta aplikazioa sustatu eta garatzeko jarduketak egingo dira. Kontuan hartuko dira, batez ere, autolikidazioak eta aitortenak egiten laguntzen dutenak.

Besteak beste, 2015ean autolikidazioak egiten laguntzeko programak prestatuko dira; programa horiek aukera emango dute autolikidazioetara inportatzeko zerga ondorioak sortzen dituzten datuak, Foru Ogasunaren esku daudenak hirugarrenek emanik Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean informazioa eman beharrez ezarritakoa betetzeko.

b) Zergadunei eskura jarriko zaie Foru Ogasunak daukan zerga informazioa, aurkeztutako aitortenak dakartena, bai eta zerga arautegian informazio betebeharez ezarritakoa betetzeko beste zergadun batzuek egotzi dieten informazioa ere.

### III. BALIOA ETA KONFIANTZA HANDITZEKO JARDUKETAK

#### 1. LANKIDETZAREN ETA ELKARRERAGINGARRITASUNAREN ARLOKO JARDUKETAK.

Arabako Foru Ogasunak lankidetzeta eta elkarreragingarritasun akordioak edukiko ditu beste erakunde eta administrazio publiko batzuekin, batetik zergadunen informazioa integratu ahal izateko Arabako Foru Ogasunaren zerga prozedurekin, eta bestetik aldi berean garatu ahal izateko beste administrazio eta erakunde batzuekiko elkarreragingarritasuna, informazio truke handiagoa sustatuz.

#### 2. ZERBITZUEN ERAGINKORTASUNA.

Arreta jarriko zaio, halaber, Foru Ogasunak kudeatzen dituen zerbitzuen funtzionamenduaren eraginkortasunari. Horretarako, erakundearen jarduera kudeatzeko eta erabakiak hartzeko eredu bat ezarriko da, bide emango duena hainbat alderdi baloratu eta jarraitzeko: jarduna eta jardueraren errendimendua, ezarritako helburuen betetzea, zerbitzuen kalitatearen bermea, eskuragarri dauden baliabideen erabileraren arrazionalizazioaren gaineko eragina, segmentuen portaera, zerbitzu berrien eragina edo emaitzen aurrerapena.

#### 3. EGINDAKO JARDUKETAK HERRITARREK HAUTEMATEA.

Guztien gastuak ordaindu ahal izateko beharrezkotzat joko dute herritarrek Foru Ogasunaren lana. Ekitatearen printzipioa aplikatu behar da zerga bilketaren prozesu osoan. Herritarrek sumatu behar dute Foru Ogasunaren jardueran parte hartzen eta laguntzen dutela.

#### 4. ALDAKETA KULTURALA ZERGA IRUZURRAREN IKUSKERAN ETA HAREN AURKAKO BORROKAN.

Arabako Foru Ogasunak zergak kudeatzeko eta ikuskatzeko lanen bidez sustatuko du herritarrek zerga betebeharrak beren borondatez betetzea eta haien artean zerga iruzurraren kontrako jokabidea zabaltzea.

## IV. IRUZURRA PREBENITZEKO ETA DETEKTATZEKO JARDUKETAK

## 1. SARRERA.

Kategoria honetan sartzen dira zergapekoek iruzurrezko jarduketak egin aurretik horiek detektatzeko eta eragozteko kontrol jarduketak. Bide horretatik, 2015. urtean Arabako Foru Ogasuna ondoko jarduketa hauetan ariko da batik bat:

a) Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretako eragileen jarraipen lanak egitea, sarrera eskatzen dutenei ezezkoa emateko edo erregistratuta dauden eragileei badaezpada baja emateko, behar denean,

b) Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretako eragileen jarraipen lanak egitea, sarrera eskatzen dutenei ezezkoa emateko edo erregistratuta dauden eragileei badaezpada baja emateko, behar denean.

c) Zergapekoek aitorten informatiboak aurkezteko betebeharrak orokorrak betetzen ote dituzten kontrolatzea, informazioa emateko betebeharrak hori Arabako zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen baita. 2015. urtean aurkeztu beharreko aitorten informatibo guztien inguruko kontrolak areagotuko dira.

d) Indarreko arautegian ezarritako kasuren batean dauden erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzea.

## 2. ZERGADUNAK SAKONKI EZAGUTZEA.

## Identifikazioa.

Kudeaketa, bilketa eta ikuskapen prozesuak indartzeko jarduketak egingo dira, eta beste administrazio eta erakunde batzuekiko informazio trukean sakonduko da. Horren harira esan beharra dago zergadunak erabat identifikatuta edukitzearen xedea, modu osagarrian, ez dela bakarrik aldizka Arabako Foru Ogasunean zergak ordaintzen dituzten zergadunen informazioa integratzea; une zehatzean beste administrazioekin egindako informazio trukearen ondorioz pertsona baten informazioa (Arabako legeria bete behar duten eragiketa puntualak edo ordainarazpenaren aginpidea Arabako Foru Ogasunari badagokio) lortu bada, lortutako informazioa ere integratu nahi da. Gauza bera egin nahi da zergadun berriak izan daitezkeenekin (atxikipena egin zaien subjektu berriekin). Kasu guztietan garrantzitsua izango da pertsona horiek identifikatzea.

## Kokapena.

Arabako Foru Ogasuna saiatuko da informazio osoa eskuratzen zergadunek jarduera ekonomikoak egiten dituzten lekuei buruz, bai eta haien ondareari buruz ere.

Horretarako eroldako alta, aldaketa eta baja aitorten jarritako datuak egiaztatuko dira, batez ere zergapekoek adierazitako zerga helbideak.

Horrenbestez, jarduketa ekonomikoei buruzko zergaren epigrafeei erreparatuz, jarduketa egoitzak edo zerga egoitza bezalako funtsezko datuak izan arren, beste egoitzak une zehatzetan aitortu edo aurkitzen dira eta zergadunari dagokion kokapenaren argazkia osatzen laguntzen dute; behar bezala antolatutako multzo bezala aitortu gabeko edo gaindiz dimentsionatutako jarduketak ikertzeko arrastoak izan daitezke; are gehiago, jakinarazpenetarako eta dokumentazioa eskatzeko zergaduna bera kokatu daiteke.

Egoitzak sailkatzeko orduan, ez zaio bakarrik informazio iturriari edo jatorriari (eta zergadunarekin izandako zuzeneko loturari edo ez duen loturari) erreparatu behar; iruzurraren kontra egiteko interes berezia duten egoitza moten markak aurrez ikusi behar ditu. Horrelako moten adibideak dira jakinarazpenetarako enpresa desberdinek partekatutako egoitzak (egoitza ha-biak) edo jarduera bat egiten den egoitza partikularrak. Horrek lagundu egingo du zergadunak

aukeratzen, aitortu gabeko jarduerak edota gezurrezko enpresak detektatzeko ikuskapen planean sar daitezten.

Zergapekoen jarduera ekonomikoak egiaztatzeke jarduketak.

Zergadunen errolda aitortenetan haien jarduera ekonomikoari buruz (enpresa edo lanbide jarduerak, nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak etab.) dagoen informazioa baliatuko du Arabako Foru Ogasunak. Foru Ogasuneko zerbitzu guztiek erabiliko dute informazio hori, bai kudeaketa bulegoek, bai ikuskapen zerbitzuak zein borondatezko eta betearazpen bidezko zerga bilketarako zerbitzuak. Gero horrek eragina izango du tributuen autolikidazioen egiaztatapenean. Egingo diren jarduketan artean hauek nabarmendu behar dira:

a) Errolda aitortenak eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aitortenak koordinatuko dira. Orain lanean ari gara Gasteizko Udalarekin errolda alta, aldaketa eta baje inguruko betebeharrak koordinatzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren alta, aldaketa eta baje aitortenekin.

b) Zergadunen ikuspegi kolektiboa lortuko da. Ildo horretan, haien gaineko informazio agregatua lortuko da, segmentaziorako irizpide nagusiak erabilita, hala nola jarduera mota edo zergadunaren profila.

Zergapekoen errenten, ondasunen eta eskubideen inguruko jarduketak.

Aldian behingo aitortpena egin behar den zergen autolikidaziorik aurkezten ez duten zergapekoei errekerimenduak egingo zaizkie. Aldian behingo aitorten horien artean azpimarratzekoa da ondarearen gaineko zergarena.

Horrez gainera ondarearen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezten duten zergapekoak kontrolatuko dira, ondasunen eta eskubideen balioak (zuzenean zein sozietate partaidetzen bidez dauzkatenenak) ondo aitortu direnez egiaztatzeke.

Egiaztatpena.

Egiaztapen jarduketek xede izango dute zergen arloko aitorten informatiboetatik ateratako informazioa erkatzea zergadunek eurek emandako datuekin, egiaztapen orokorrekoak edo egiaztapen murriztu edo mugatukoak ez diren espedienteetan. Prozedura horrek ez du preskripzioa eteten.

Helburua izango da Administrazioak arin egiaztatu ahal izatea aurkeztutako aitortenetako datuak. Horren emaitza izan daiteke geroago espedientearen egiaztatpena egitea edo espediente hori ikuskapen plan batean sartzea. Gerta daiteke, halaber, zergapekoak bere aitortpena oker dagoela egiaztatzea eta epez kanpoko aitorten osagarria aurkeztea. Hori egiten dutenek Arabako zergen Foru Arau Orokorrak ezartzen dituen errekarguak eta berandutza korrituak ordainduko dituzte.

Informazio kualitatiboa biltzeko sistema.

Establezimenduetan beraietan jasoko diren datuei esker zergapeko jakin batzuen zerga informazioa bilduko duten datu baseak sortuko dira. Hain zuzen ere ikuskapen jardueraren bidez informazio kualitatiboa lortzeko metodo bat erabiliko da, eta horrela hobetu eta osatu egingo da Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren egungo informazio sistema, funtsean kuantitatiboa eta estatistikoa. Informazio kualitatiboa biltzeko sistema ezarriko da Arabako Lurralde Historikoko zergapekoen artean dauden arriskuak ezagutzeko.

Orobat, horri esker ez betetze larrienak identifikatu ahal izango dira horien kausak gainditzeko eta betetze maila hobetzeko neurriak proposatzeko asmoarekin.

Informazio kualitatiboko sistema hori ezartzeko tresna hauek garatu behar dira:

1. Ikuskapen jardueraren bidez informazio kualitatiboa lortzeko metodoa eta prozedura landuko dira, bildutako informazioa aztertzeke, teknikoki balio orokorreko ondorioak ateratzea

ahalbidetuko duena. Teknologien eta garapen informatikoen erabilerak garrantzi berezia izango du zergen arloko datu baseetako informazioaren inguruko lanetan.

2. Adierazle, ratio eta marjina komertzial batzuk sortuko dira; horiei esker zergaldi bakoitzean zergapekoen portaera neurtu ahal izango da aztertutako sektore ekonomiko guztietan (zerga nagusietan aitortutako batez besteko etekinak eta kuotak, eta benetan ordaindutakoak) zergapeko motak eta ez betetzearen graduak aztertuko dira Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak diharduen arlo guztietan.

Marjina komertzial eta ratio horiek erreferentzia izango dira eskatutako informazio kualitati-boaren edukia orientatzeko eta hura aztertu eta ebaluatzeko. Horiez baliatuz denborazko segidak egin ahal izango dira, erabakiak hartu ahal izango dira, erakundearen ildo estrategikoak ezarri ahal izango dira, arrazoiak jakinda, eta arreta berezia jarri ahal izango da iruzurraren kontrol eta prebentziorako jarduketetan.

Adierazlea edo ratioa kuantifikatzeko hautatutako irizpideak, arau orokor gisa, hauexek izango dira: erregresio lineala eta salmenten kontrolean egindako zenbait egiaztapenen bidez detektatutako desbideratze estatistikoa, metodo estatistikoen aplikazioa, kurben doiketak eta proiektzio eredu matematikoak.

Laburbilduz, aginte koadro estatistiko bat eduki nahi da, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren plangintza tresnen, zerga arloko datuen eta informatikako eta estatistikako teknika berrien osagarria.

### 3. ENPRESA HANDIAK.

Enpresa Handien Unitateak haien jarraipena eta egiaztapena egingo ditu; sozietate orokorrak zein mugatuak egiaztatuko ditu.

Sozietateekin eta enpresekin aldizka biltzeaz eta laster aplikatuko diren neurriei buruzko informazioa (egin litezkeen berregituraketan kontrola) eskatzen jarraitzeaz gainera batez ere nazioarteko fiskalitatearen kontrola landuko da.

Nazioarteko fiskalitatea dela eta, aipatu beharra dago kontrol jarduketan orientazioa Espainia kide den nazioarteko erakundeen ekimenek markatzen dutela (ELGA, G20 eta Europako Kontseilua).

Horietan BEPS proiektua azpimarratu behar da (ingelesezko siglen itzulpena: "Zerga oinarrien higadura eta mozkinen desbideraketa"). Proiektu honen bidez neurriak ezarri nahi dira zergapetzerik ezaren eta mozkinak modu artifizialean beste estatu batzuetara desbideratzearen arazoa ekiditeko; izan ere, iruzur egin nahi dutenak estatu etako zerga sistemen arteko elkarre-raginaz eta zergapetze bikoitza saihesteko itunbenez baliatzen dira.

Halaber, kontuan eduki behar da Europar Batasunak ekimena abiarazi duela 2011/96/UE Zuzentaraua, Batasuneko estatu etan ari diren sozietate nagusi eta mendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zuena, aldatzeko.

Gainera, Gardentasunaren eta Informazio Trukearen Foro Nagusian prestatutako estrategia- ren barruan egiten diren lanak ere aintzat hartu behar dira; jarduketa horien bitartez nazioarteko informazio trukearako estandarrak finkatzea eta zabaltzea bultzatzen da.

Oso garrantzitsua da Estatu Batuekin finantzen arloko informazioa modu automatikoa- n trukatzeko sinatutako akordioa (FATCA), informazio osoa eta eraginkorra lortzeko tresna baita, helburua zerga arrisku handiko eremuak azkar detektatzea dela, eta antzekoak izango dira Euro- par Batasuneko eta ELGAko beste estatu batzuekin luze gabe sinatuko direnak ere. Horiek guz- tiek erakusten dute apustu argia egin dela informazio trukearen eta gardentasunaren alde zerga iruzurraren eta zerga ihesaren kontra borrokatzeko.

Espainiak informazioa trukatzeko sinatutako akordioen eta hitzarmenen sarea zabaltzeak aukera emango du nazioarteko errekerimenduak aurkezteko zerga paradisutzat jotzen diren lurraldeei eta jurisdikzioei.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak 2015. urtean arrisku eremu horietan aritzeko plangintza bultzatzen jarraituko du, eta horrek garrantzi berezia edukiko du nazioarteko fiskalitatean, lan horien ondorioz nazioartean eragin handia izan lezaketen gobernu arteko prozedurak eratu daitezke eta.

Hain zuzen ere, 2015. urtean nazioarteko fiskalitatearen arloan arreta berezia emango zaie ondoko hauei:

a) Barruko eta nazioarteko araudia neurritz gainera erabiltzea.

Kanpoan egiten diren kopuru handiko ordainketak eta eragiketa konplexuak kontrolatuko dira, hain zuzen ere barruko araudian edo Espainian errentak behar bezala zergapetzen direla bermatzeko sinatzen diren hitzarmenetan abusuen kontra ezartzen diren neurriak aplikatu ahal zaizkienak.

b) Zerga paradisuekin egiten diren eragiketak kontrolatzea.

Egoitza zerga paradisu batean duten pertsona eta erakundeekin egiten diren eragiketen tributazioa egiaztatuko da, gure araudian horrelako kasuetarako ezartzen diren mugak eta erregelak betetzen direnez jakiteko.

Halaber, Espainian zergarik ez ordaintzeko asmoarekin alegiazko zerga egoitza beste estatu batean, batez ere tributazio txikiko edo zerga paradisutzat jotzen den batean, ezartzen duten pertsonak eta erakundeak kontrolatuko dira.

c) Transferentzia prezioak.

Transferentzia prezioen gaineko arauak ondo aplikatzen direnez kontrolatuko da, batez ere enpresak berregituratzeko eragiketa konplexuetan, talde barruko zerbitzuetan, kostuak banatzeko akordioetan eta balio handiko ondasun ukiezinekin egiten diren eragiketetan.

Horrez gainera aurreko balorazio akordioak bultzatuko dira, tresna egokiak baitira iruzurra saihesteko eta enpresen transferentzia prezioen politiken ondoriozko arriskuak ezabatzeko.

d) Nazioarteko fiskalitatea kontrolatzeko beste jarduketak batzuk.

Arabako enpresek balio erantsiaren gaineko zergaren karga jasaten duten eragiketak iker-tuko dira, zerga iruzurra azaleratzeko bainoago Arabako Lurralde Historikoak biltzen duena murrizten delako, batez ere subjektu pasiboak salgaiak edo zerbitzuak, batik bat egoitza Araban eduki ez eta establezimendu iraunkorrik gabe ari diren zergadunek bidaliak (arreta berezia jarrita Espainian ari diren talde multinazionalei), jasotzen dituen Arabako enpresa izan behar den eragiketak.

Horretarako arreta bereziarekin aztertuko dira egoitza Espainian duten mendeko erakundeak eta egoitza ez duten erakundeak.

#### 4. INFORMAZIOA TRUKATZEKO JARDUKETAK.

Hiru foru aldundiek 2015. urtean jarduketa koordinatuak egingo dituzte zergetarako garrantzia duen zergapekoen informazioa lortu, normalizatu eta aztertzeke ondoko arlo hauetan:

1) Zergen arloko foru administrazioekin, lurralde erkideko administrazioekin eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetako administrazioekin aldi berean egin izan diren informazio trukeak indartzea, garatzea eta areagotzea.

2014. urtean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru ogasunek lankidetzan hitzarmenak sinatu dituzte zerga helburuetarako informazio trukeak egiteko. Hitzarmen horietan informazio trukean bete behar diren baldintzak eta prozedurak ezartzen dira, informazioan agertzen diren

pertsonen eskubideak babestuta, eta foru ogasunen zerga arloko datu baseak denbora errealean elkarrekin komunikatzeko mekanismo teknikoa antolatzen da. 2015. urtean, aurrean aipatutako hitzarmenetan ezartzen diren jarduketa arloetan behar diren egokitzapen informatiko guztiak burutuko dira eta datu baseak denbora errealean konektatzeko behar diren txosten guztiak egingo dira.

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako eta Nafarroako Foru Ogasuneko arduradunekin behar diren kudeaketak egingo dira informazio trukerako lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko eta eguneratzeko, hala behar denean. Hitzarmen horietan ere, gainerako zerga administrazioekin ezarritako baldintza eta prozedura berak jasoko dira.

2) Zergen arloan garrantzia duen informazioa zerga administrazioez besteko administrazio, erakunde eta entitate publikoekin trukatzeko prozesuak sakondu egingo dira erakunde horiekin aurreko urteetan sinatutako hitzarmenak sendotuz eta garatuz.

2014. urtean Eusko Jaurlaritzaren eta foru ogasunen ordezkarien batzordea sortu da zerga arloko datu jakingarrien gaineko informazio trukeak planifikatzeko eta horien jarraipena egiteko. 2015. urtean esparru hitzarmena formalizatuko da foru ogasunen eta Eusko Jaurlaritzako sailen arteko informazio trukeen ildo nagusiak ezartzeko.

3) Informazioa eman beharra, Arabako Lurralde Historikoko zergei buruzko foru arau orokorrean ezartzen dena, betetzeko aurkeztu beharko diren aitorten informatibo berriak onartzea.

Gainera, lehendik eskatzen diren aitorten informatiboek dagokienez, jarduketak egingo dira horiek garatzeko, finkatzeko, informazio gehiago eskatzeko eta ekitaldian zehar egiten diren arau aldaketei egokitzeko.

Hain zuzen ere, ondoko aitorten informatiboak aldatuko dira zergen aplikazioan eragina daukan informazio gehiago biltzeko:

190 eredia – Urteko laburpen aitortpena: lanaren etekinei, jarduera ekonomikoen etekinei, sariei eta errenta egozketa batzuei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak. Atal honetan atzerrian ari diren langileen ordainsariak kontrolatzeko jarduketak egingo dira.

194 eredia – Urteko laburpen aitortpena: besteren kapitalak jaso eta erabiltzearen adierazgarri diren mota guztietako aktiboak eskualdatu, amortizatu, ordaindu, trukatu edo bihurtuta lortutako errenten eta kapital higigarriaren etekinen gainean egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak.

781 eredia - Etxebizitza kontuen gaineko aitorten informatiboa.

036 eredia – Errola aitortpena: jarduera hastea, aldatzea edo uztea.

4) Zerga arrisku handiko sektore ekonomikoetan diharduten zergapekoei buruz zergen arloan garrantzia duen informazio gehiago eta hobea edukitzea erakunde publiko edo pribatuen eskuetan dagoen informazioa lortuz.

Honen ildotik Foru Ogasunak informazioa eskuratzeko jarduketa selektiboak egingo ditu hobeto zehaztu ahal izateko zenbait profesional taldek eta enpresa jardueraren zenbait sektorek lortutako diru sarreraren maila eta, halaber, aberastasunaren erakusgarri diren eta Zerga Administrazioari aitortutakoarekin bat ez datozen gastu eta inbertsioak.

Zehatzago, jarduera ekonomikoaren sektore hauei buruzko informazioa lortzeko jarduketak egingo dira, besteak beste:

a) Jarduera profesionalak egiten dituzten zergapekoak eta bitarteko sozietateak.

b) Eraikinak zaharberritzeko obrak (informazioa emateko errekerimenduak egingo zaizkie erakunde publikoei eta jabe erkidegoei).

c) Gastu hauen kengarritasuna kontrolatzeko jarduketak: sukaldaritza, ostalaritza, bidaiak eta joan-etorriak loturiko harreman publikoen ondoriozko gastuak, opariak eta gainerako erregaliak, garraio elementuak (automobilak eta itsasontziak) erabiltzeak eragindako gastuak, pertsona juridikoek eta sozietateen gaineko zerga ordaindu behar duten gainerako erakundeek eta pertsona fisiko diren enpresaburuek eta profesionalek egiten dituztenean, zerga iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak onartzen dituzten foru arauetan araudian egindako aldaketak kontuan hartuta.

d) Kredituko finantza erakundeak eta establezimenduak, urtean kopuru handiko ordainketak egiten dituzten kreditu edo zordunketa txartelen titular diren bezeroei dagokienez.

e) Ondasun emateak edo zerbitzuak azken kontsumitzaileei zuzenean egiten dizkieten pertsonak edo erakundeak egiten dituzten jarduerak erregistratzen dituzten sistema informatikoen kontrola, eta establezimenduok fakturak egin eta eman beharrak betetzen dituzten egiaztatzea.

Faktura egiaztapen fiskalerako dokumentu lagungarria da. Horregatik sailen arteko lankidetzarako zenbait neurri hartu behar dira, herritarrak sentikortzeko eta zerbitzugileei eta ondasun emaileei gogora ekartzeko eragiketarako dokumentatu egin behar direla faktura erraztuetan, tiketetan edo ordainagiri zenbakidunetan.

f) Ondasun higiezinaren sektorea. Sektore honetan luxuzko etxebizitza berria erosten dutenen inguruko informazioa eta higiezinaren errentamenduen buruzko informazioa biltzeko jarduketak egingo dira.

g) Balio erantsiaren gaineko zergaren ondasun erabilien, arte objektuen, antzinako gauzen eta bilduma objektuen araubide berezia zuzen betetzen denez kontrolatzea.

## 5. EGIAZTAPEN INFORMATIKOAK.

Ohi bezala Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egiaztapen informatiko garrantzitsuak egingo ditu ardatz hauekin: ikuskatzen diren jarduera ekonomikoak (kontabilitatean eta zergetan eragina duten jarduerak izan ohi dira) kontrolatzeko eta kudeatzeko erabiltzen den sistema informatikoa ezagutzea eta ulertzea.

Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren lanari esker kontabilitateak eta beraien oinarrizko datuak kontrolatu ahal izango dira:

### 1. Enpresen ingurune informatikoak identifikatuko dira.

Helburu nagusia egiaztapenaren aldiaren jardueren kudeaketa administratiborako eta beraien kontabilitatea artezteko erabilitako sistema informatikoak eta aplikazio orokorrak identifikatzea izango da; bigarren urratsean sistemetako informazio esanguratsua identifikatuko da eta aztertu beharreko datuak hautatuko dira.

### 2. Enpresei fitxategiak eskatuko zaizkie lortutako datuak lantzeko eta analizatzeko.

Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuek berariazko programak erabiliko dituzte eta horiei esker fitxategi informatiko gehienak erabili ahal izango dituzte lanean. Sistemak, informazio esanguratsua eta enpresak datuak kontsultatzeko eta deskargatzeko edo esportatzeko instalatutako tresnak identifikatu ondoren Zerbitzuak nolako kontrolak edo probak egin behar diren erabakiko du.

Analisirako tresna egokiek kalkulu ahalmen handia emango dute; nolahi ere, ezinbestekoa da ikuskatzaileek ezagutza tekniko bereziak edukitzea fitxategien prozesamenduz eta galdeketa.

## V. IRUZURRA DETEKTATZEKO ETA ERREGULARIZATZEKO JARDUKETAK

Iruzurra detektatzeko eta erregularizatzeko jarduketak Arabako Foru Aldundiko ikuskaketa eta kudeaketa organoek egingo dituzte; hona nagusiak:

1) Enpresa handiak kontrolatuko dira; horretarako Enpresa Handien Unitateak honelako enpresen jardueren jarraipena egingo du.

2) Frogatu gabeko ondare irabaziak egiaztatuko dira. Hain zuzen ere, aitortutako etekinen mailarekin bat ez datorren ahalmen ekonomikoa islatzen duten zantzu nabarmenak antzematen zaizkien zergapekoen zerga egoera erregularra denez egiaztatuko da.

Gastu handiei buruzko informazioa lortzeko jarduketak egingo dira, gastuok egiten dituzten zergapekoen errenta mailak zehazteko.

Hain zuzen ere, kobratzen diren txekeak eta eskudirutan egiten diren mugimenduak ikertuko dira 171 ereduan (ezarpen, funts baliatze eta zeinahi agiriren bidezko kobratzen urteko aitorten informatiboa) biltzen den informazioari esker, iruzur eragiketen adierazgarri izan daitezke eta.

Ildo honetatik, berariazko jarduketak egingo dira txeke handiak kobratzen dituzten, esku-diru kopuru handiak erabiltzen dituzten edo atzerrian konturen bat duten zergapekoen egoera kontrolatzeko.

3) Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek aldizka aurkeztu beharreko aitortenak kontrolatuko dira.

a) Ekitaldian bertan eta hurrengoetan aplikatzen diren aitorteneko galera handiak egiaztatuko dira.

b) Zerga onurak egiaztatuko dira, sortzen diren ekitaldian bertan edo onura sendotzeko betekizunak betetzeko epealdia amaitzen den ekitaldian aplikatzen direnak zein bestelakoak.

Hain zuzen ere, kontrol zorrotzagoa aplikatuko zaie sozietateen gaineko zergaren ordainketan ikerkuntza, garapen eta berrikuntza teknologikoaren arloko jarduerengatik aitortzen diren kenkariari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketan ohiko etxebizitza eros-teagatik aitortzen direnei.

Sozietateen gaineko zergaren ordainketan ikerkuntza, garapen eta berrikuntza teknologikoaren arloko jarduerengatik egiten diren kenkariak honela egiaztatuko dira batik bat: zergapekoek aurkezten dituzten autolikidazioak erkatuko dira arlo honetako informazioa ematen duten erakundeek zergaren ondorioetarako egiten dituzten kalifikazio txosten teknikoekin.

c) Sozietateen gaineko zergaren aitortenetan zerga arautegiaren aplikazioaren ondorioz kontabilitateko emaitzan egiten diren doikuntza negatiboak aztertuko dira (amortizatzeko askatasuna; zerga kenkaririk ez dakarten gastuak), eta zerga sarrera edo gastua kontabilitatekoarekin bat ez datorren beste kasu batzuk ere bai.

d) Kontabilitateko berariazko beste gastu batzuk aztertuko dira: narriadurak eta hornikuntzak.

e) Balio erantsiaren gaineko zergaren aitortenetan, itzultzeko eskatzen ez den konpentsatu beharreko saldoak egiaztatuko dira.

f) ZAEA, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak bildu diren lan taldeetan zergen kontrolaz eta akta bakarrez hartutako akordioak betetzeko, zergak aldundien zerga administrazioei eta lurralde erkideko zerga administrazioari lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen dizkieten zergapekoen kasuan, Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko direnen egoera egiaztatuko da.

Ezinbestekoa da eten gabe kontrolatzea zergadunek lurralde bakoitzean (erkidean eta foralean) aitortzen dituzten tributazio ehunekoak, horiek zuzentzeak berekin ekarriko baitu Ekonomia itunaren arabera zerga administrazioek batera ordainarazi behar dituzten zerga kontzeptuen kuotak behar bezala kobratzea.

g) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren tributazioan, zergapekoek dirua itzultzeko aurkezten dituzten eskaeren kontrolak gehituko dira.

Hain zuzen ere, balio erantsiaren gaineko zergaren tributazioan aurkezten diren itzulketa eskaeren kontrola areagotuko da, batez ere hileko itzulketen erregistroan dauden zergapekoen eskaerena; horretarako, beharrezkoa izanez gero, zerga arriskurik handieneko zergapekoen gaineko ikerketa jarduketak gehituko dira.

h) Lotutako pertsonen edo erakundeen arteko eragiketak kontrolatuko dira substratu ekonomikorik ez dutenak eta merkatukoa ez beste balio bat ezarrita dutenak detektatzeko.

Hain zuzen ere, tarteko pertsona juridikoen bitartez aritzen diren profesionalek eta sozietateen administratzaileek eta lotutako beste pertsona batzuek egiten dituzten eragiketak egiaztatuko dira kasu hauetan: karguan aritzeagatik ordainsaririk jasotzen ez dutenean edo jasotzen duten ordainsaria oso murrizta denean. Horrez gainera lotutako sozietateekin egindako eragiketen balioa merkatukoa izan beharra bete denez ere egiaztatuko da.

i) Itzulketa eskaera handiak egiten diren jarduera ekonomikoak egiaztatu eta ikertuko dira, bai eta aitortutako gastuak hirugarrenek egotzitakoekin bat ez datozenak ere.

j) Atxikipenak eta konturako sarrerak egin eta sartu behar dituzten zergapekoen kontrola areagotuko da, batez ere lanaren errentak eta kapital higiezinaren errentak direla eta egin behar dituzten atxikipen eta konturako sarreren gainekoa.

Hain zuzen ere, enpresek enplegatuei ordaintzen dizkieten atxikipen eta kargarik gabeko sarien erregulartasuna kontrolatuko da.

k) Zergen Foru Arau Orokorrean informazioa eman beharraz ezarritakoa betetzeko aurkeztutako zerga aitorten batean koherentea ez den daturen bat ematen duten zergapekoen egoera egiaztatuko da, bai eta hirugarrenek emandako informazioan gauza bera antzematen den zergapekoen egoera ere.

4) Zergaldirik gabeko zergen (batez ere ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga) autolikidaziorik aurkeztu ez duten zergapekoak ikertuko dira.

5) Zerga arriskua dagoen eragiketak egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketak egingo dira.

a) BEZean eta zerga berezietan dauden iruzur azpikeriak ikertuko dira. Jarduketa hauen bidez Arabako Foru Ogasunak Batasunaren barruko eragiketen arriskua txikitu nahi du eta iruzurrari azkar antzeman nahi dio; horrela honelako azpikerietan dabiltzanek Ogasun Publikoari egiten dioten kalte handia saihestuko da, urratzaileak berehala desagertzen baitira iruzurra egin ondoren.

b) Balio erantsiaren gaineko zerga egiaztatuko da norbanakoek ibilgailua erosten dutenean Europar Batasuneko herrialde batean eta txikizkako merkatariek Europar Batasunean zerbait erosten dutenean.

c) Jarduerarik gabeko sozietateak kontrolatuko dira.

2015. urtean faktura faltsurik egin eta jasotzen den ikertuko da, batez ere zerga araubide objektiboetan dauden zergapekoen kasuan, batez ere balio erantsiaren gaineko zergan eta garraio bide jakin batzuen gaineko zerga berezian.

6) Pertsona fisikoek eta juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzen duten kontrolatuko da.

Hain zuzen ere, etekin garbi txikiko jarduera ekonomikoak egiten duten zergapekoak kontrolatuko dira, bai eta kopurua handia itzultzeko eskatzen dutenak ere.

7) Zenbateko handiko transakzioak kontrolatuko dira kasu hauetan: akzioen salerosketak; higiezinaren salerosketak; dibisetan egiten diren transakzioak.

8) Jarduera ekonomikoaren sektore jakin batzuk kontrolatuko dira; besteak beste:

a) Kreditu txartelen, kargu txartelen edo antzekoen bidezko kobrantzak kudeatzeko sistemari atxikitako dispositiboak erabiltzen diren jarduera ekonomikoak egiaztatuko dira.

Aurreko urteetan bezala 170 ereduan (Urteko aitorten informatiboa: kreditu edo zor txartelen bidezko kobrantzak kudeatzeko sistemari atxikitako enpresaburuek eta profesionalek egindako eragiketak) biltzen den informazioa aztertuko da aitortutako sarrerak erakundeek emandako datuekin bat datozen zehazteko. Halaber, saltokietako terminalen banku kontuen titulartasunak aztertuko dira. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zenbatespen objektiboaren bidez aitortzen duten banako enpresaburu batzuk eta balio erantsiaren gaineko zerga araubide erraztuan aitortzen duten batzuk ere ikertuko dira, hain zuzen ere aurreko ereduko datuen arabera BEZerako ezarritako muga gainditzen dutenak. Azkenik, saltokietako terminalen banku kontuen titulartasunak aztertuko dira.

b) Zerga arrisku handiko sektore ekonomikoetan ari diren zergapekoak egiaztatuko dira, esaterako jarduera handiko profesional liberalak eta azken kontsumitzaileekin aritzen diren negozioak, eta jarduera handiko txikizkako negozioak.

c) Beste enpresa batzuek egindako zenbatespenen, sektoreko datu ekonomikoen eta informazio ekonomikoaren arabera irabazi gutxi aitortzen diren jarduerak aztertuko dira.

## VI. ZERGA BILTZEKO JARDUKETAK

### 1. Erantzukizunak benetako erantzuleei ezartzeko jarduketak.

Zerga zorra kobratzeko jarduketak egingo dira. Hain zuzen ere, zorren ordainketan, jardueraren ondorengotza dela eta edo zerga arautegian ezarritakoaren arabera horretarako gaitzen duen inguruabarra gertatzeagatik sortzen den erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erantzule diren hirugarrenei ezartzeko jarduketak egingo dira.

Jarraipen berezia egingo zaie egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileei eta kapitalean zuzenean zein zeharka gutxienez ehuneko 20ko partaidetza duten bazkideei, sartu gabeko atxikipenak egin dituzten erakundeen zerga erantzule diren aldetik. Erantzukizunaren zenbatekoa atxikipenak direla eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan aplikatutako kenkariaren zenbatekoa izango da.

### 2. Kautelazko neurriak.

Kautelazko neurriak ezarriko dira ondare husteko arriskua dagoenean; horiei esker horrelakoetan ez da egongo likidazio prozedura amaitu beharrik ondasunak enbargatzeko.

3. Enpresaren ondorengotzarako konkurtsoa erabili den kasuetan eskuratzailari erantzukizuna deribatzea ezinezkoa izanez gero, konkurtsoa ondo erabili denez egiaztatzea.

Hartzekodunen konkurtsoan dauden pertsonen eta erakundeen egoera egiaztatuko da: zerga egoera erregularizatuko zaie eta konkurtso prozedurako edo horren aurreko jokabideak aztertuko dira, zerga zorren kobrantzan interes publikoei kalte egin ote dieten argitzeko.

Ondoko hauek ere aztertuko dira: kontu emateko eragiketak; ondare eskualdaketak; konkurtso administratzaileen jarduketak; konkurtsoaren aurretik sortutako zergapeko egitateen ondoriozko zerga betebeharrak ondo bete direnez.